

GAKO EKONOMIKOAK

- Munduko burtsa nagusietan positiboan itxi dute apirila.
- Merkataritza gerraren inguruko elkarrizketen martxak, Brexita atzeratzeak, Txinako datu ekonomiko onek eta enpresa emaitza oneko denboraldiaren hasierak bigarren plano batean utzi dute desazelerazio orokorrari egoen beldurra.
- Errenta finkoan, posizio arriskutsuak lortzeko gogo handiagoak zor subiranoaren errentagarritasunetan goranzko posizioak indartzen ditu, Banku Zentralen adierazpenen ondorengo tasen beheranzko joera orokorraren barruan.
- Petrolioaren prezioak gorantz jarraitzen du egiten, eta dagoeneko % 35 metatu da.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Burtsako indize nagusiek igoera handiak izan dituzte apirilean. AEBen eta Txinaren arteko merkataritza negoziazioetan egindako aurrera pausoez, Brexita atzeratzeak, Asiako erraldoiaren ezusteko datu ekonomikoek eta AEBtan lehenengo hiruhilekoan lortutako uste baino enpresa emaitza hobeez 2019ko hasieran burtsak gorako joerari eusteko katalizatzailea izan ziren. Merkataritza gerrari dagokionez, hilean zehar hainbat tirabira bizi izan baziren Estatu Batuen eta Txinaren artean, bi potentzien arteko akordioa gero eta gertuago dagoela dirudi. Izan ere, azken albisteen arabera, adostasun berri bat omen dago, zeinaren bitartez bi potentziek maiatzaren hasieran banatu ahal izango den akordioaren zirriborroa egiten saiatuko diren. Brexitari dagokionez, Londresen eta EBaren artean sinatutako akordioari parlamentuaren babesa emateko aurrera pausoen ezak beste luzapen bat eskatzera behartu zuten May eta, azkenean, apirilaren 10ean egin zen europar gailurrean, urriaren 31ra arte luzatzea erabaki zen, eta ekainaren 30erako akordioa berrikustea planteatu zen. Bestetik, AEBn eta Txinan argitaratutako makro datuak sendoak badira ere, FMIak plazaratutako hazkuntza-aurreikuspenen beherapenak hilabete honetan zehar argitaratutako beste batzuen tonuarekin batera, Europan gehienbat, ekonomiaren geldialdiari beldurra eragiten jarraitu dute. Agertoki horren aurrean, diru agintarien mezuek moneta politika malgu baterantz zuzentzen dute, batetik, FEDen azken zirriborroek eta, bestetik, Europako Banku Zentralarekin egindako azken bilerak egiaztatzen duten bezala, interes tasan, ezta entitatearen zorraren berrinbertsioko politikan aldaketarik gabe. Aldiz, intuizioak azken urteotan bankuen sektorean izandako diru politikak (tasak negatiboan) arintzeko aukera azaltzen zuen.

ERRENTA ALDAKORRA

Europar merkatuek % 4,86 inguruko aurrerapenarekin itxi zuten apirila Eurostoxx50ean, edo % 3,57koa Ibex 35ean, zeina 9.570 punturekin bukatzen duen hilea, tentsio handiko hauteskunde orokorrak igaro ondoren, zeinetan emaitzek inkestek ziotenaren nahiko antza handia izan zuten. Bestetik, Ipar Amerikako parkeetan ere goranzko hilea izan da apirila. Merkatu nagusietako batzuek maximo historiko berriak lortu dituzte, S&P500 ta Nasdaq, esaterako, zeinak % 3,93 eta % 5.46 hobetu ondoren, hurrenez hurren, gorantz jarraitzen baitute, eta, dirudienez, urteko % 17 eta % 23 inguru lortuko dute. Dow Jonesek, aldiz, hileko % 2,4ko igoeraren ondoren, % 14ra iritsiko da 2019an. Bestetik, tonu ona bizi izan dute merkatu gainerakorrek, zeinak, garatutako merkatuek baino igoera motelagoak izan bazuten ere, apirila positiboan itxi zuten, Txinako merkatuak izan ezik, zeinak % 0,42 galdu zuen. Azkenik, Nikkei 225 japoniarrak, nahiz eta martxoan erori, ia % 5 igo da apirilean zehar.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2019ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.570,6	EUR	%12,07
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.514,62	EUR	%17,10
S&P-500	AEB	2.945,83	USD	%17,51
DOW JONES	AEB	26.592,91	USD	%14,00
NASDAQ 100	AEB	7.781,46	USD	%22,93
NIKKEI-225	JAPONIA	22.258,73	JPY	%11,21
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.079,24	USD	%11,75
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.178,674	EUR	%15,65

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Posizio arriskutsuagoak lortzeko gogo handiagoak zor subiranoaren errentagarritasunetan goranzko mugimendua bultzatu zuen AEBtan zein Europan. Hortaz, amerikar bonuaren hamar urterako errentagarritasunak 10bps igo zen % 2,50era arte, eta hamar urterako tasa alemana 8bp igo zen % 0,01era arte, eta berriz ere jarri zen eremu positiboan. Periferiari dagokionez, Espainiako arriskuko prima 18pbtan hobetu zen 98 pbtara arte, eta 100 pbtik behera jarri zen lehenengoz martxotik. Bestetik, kreditua hobetu zen diferentzialak estutzean.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2019ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,31	0,00
	6 HIL.	-0,23	0,01
	12 HIL.	-0,11	0,00
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,58	0,03
	5 URTE	-0,41	-0,10
	10 URTE	0,01	-0,23
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,34	-0,10
	5 URTE	0,15	-0,19
	10 URTE	1,00	-0,42

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Euroak nahiko lau bukatu zuen dibisa estatubatuarrarekiko, % 0,1 galduz, 1,12 dolarrera arte, nahiz eta hilean zehar 1,11\$/€-ra arte erori zen, iazko maiatzetik 'billete berdearen' aurka izandako eroriko handiena. Bestetik, petrolioak apirilean goranzko ondoko ondoko laugarren hilea bizi izan zuen, % 6,43ra arte birbalorizatu, eta 71,85 dolarrera arte iritsi zen, nahiz eta, hilean zehar 75 dolarrera arte iritsi zen, urritik gertatzen ez dena. Azken hiletan izandako petrolioaren prezioaren igoeraren arrazoia Venezuelan eta Libian izandako ekoizpen arazoak dira, baina apirileko hirugarren astean are gehiago larriagotu zen egoera, AEBk iraniar esportazioei egindako bahimenduaren ondorioz

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg